## AÑANAKO KUADRILLAKO BATZORDEAREN OSOKO BILKURAK EGINDAKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA, 2020KO ABENDUAREN 22AN

**PRESIDENTEA:**

JAVIER URIARTE JAIRO jauna

| BERTARATUTAKO BATZARKIDEAK | ORDEZKATUTAKO UDALA |
|---|---|
| MEDINA PÉREZ DE NANCLARES, GARBIÑE | AÑANA |
| PEREA ANUNCIBAY, MARIO | BERANTEVILLA |
| TORREMOCHA GALAN, RUBEN | IRUÑA OKA |
| RIVAS GARCÍA, JULIA | IRUÑA OKA |
| MATEO LÓPEZ, Mª DEL CARMEN | IRUÑA OKA |
| PÉREZ SANTAMARÍA, MIGUEL ÁNGEL | IRUÑA OKA |
| GUINEA DIAZ DE OTALORA, JESÚS Mª | IRUÑA OKA |
| MARTÍNEZ DE SANTOS GOIRIENA, OIER | KUARTANGO |
| GARCÍA ANGULO, SONIA | LANTARÓN |
| MARTINEZ DE ITURRATE CUARTANGO, AMADO | ERRIBERABEITIA |
| MARTINEZ DE LA PERA MONTOYA, ASIER | GAUBEA |
| PORRES SERNA, ROBERTO | GAUBEA |
| ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI, AITOR | ZAMBRANA |

| EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE: | |
|---|---|
| MUÑOZ BARTOLOME, JUAN | ARMIÑÓN |
| ARRUE IBÁÑEZ, BLANCA | ERRIBERAGOITIA |
| MARTINEZ DE TRESPUENTES FERNANDEZ DE MONTOYA, IÑIGO | ERRIBERAGOITIA |
| RUIZ GARCÍA, PEIO | ERRIBERABEITIA |
| SANTAMARÍA MARTÍNEZ, MIREN | ERRIBERABEITIA |

Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 22. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Kuadrillako Batzordea batzartu egin da Ribabellosako egoitza ofizialeko bilkura-aretoan, 2020ko abenduaren 22ko 18:00etan, horretarako deialdia egin ondoren; JAVIER URIARTE JAIRO jauna buru duela, arestian adierazitako batzarkide jaunak/andreak bertan direla, eta idazkaria LETICIA DE CASTRO BARTOLOME andrea izanik.

## ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE LA JUNTA DE CUADRILLA DE AÑANA - AÑANAKO ESKUALDEA, EL DÍA 22 DE DICIEMBRE DE 2020

**PRESIDENTE:**

D. JAVIER URIARTE JAIRO

| JUNTEROS/AS ASISTENTES | AYUNTAMIENTO REPRESENTADO |
|---|---|
| MEDINA PÉREZ DE NANCLARES, GARBIÑE | AÑANA |
| PEREA ANUNCIBAY, MARIO | BERANTEVILLA |
| TORREMOCHA GALAN, RUBEN | IRUÑA DE OCA |
| RIVAS GARCÍA, JULIA | IRUÑA DE OCA |
| MATEO LÓPEZ, Mª DEL CARMEN | IRUÑA DE OCA |
| PÉREZ SANTAMARÍA, MIGUEL ÁNGEL | IRUÑA DE OCA |
| GUINEA DIAZ DE OTALORA, JESÚS Mª | IRUÑA DE OCA |
| MARTÍNEZ DE SANTOS GOIRIENA, OIER | KUARTANGO |
| GARCÍA ANGULO, SONIA | LANTARÓN |
| MARTINEZ DE ITURRATE CUARTANGO, AMADO | RIBERA BAJA |
| MARTINEZ DE LA PERA MONTOYA, ASIER | VALDEGOVÍA |
| PORRES SERNA, ROBERTO | VALDEGOVÍA |
| ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI, AITOR | ZAMBRANA |

| EXCUSAN SU ASISTENCIA: | |
|---|---|
| MUÑOZ BARTOLOME, JUAN | ARMIÑÓN |
| ARRUE IBÁÑEZ, BLANCA | RIBERA ALTA |
| MARTINEZ DE TRESPUENTES FERNANDEZ DE MONTOYA, IÑIGO | RIBERA ALTA |
| RUIZ GARCÍA, PEIO | RIBERA BAJA |
| SANTAMARÍA MARTÍNEZ, MIREN | RIBERA BAJA |

De conformidad con lo establecido en el Artículo 22 de la Norma Foral 63/1989, de 20 de noviembre, de Cuadrillas, se reúne la Junta de Cuadrilla en el Salón de Sesiones de la sede oficial de la misma en Ribabellosa, siendo las 18:00 horas del 22 de diciembre de 2020, previa convocatoria realizada al efecto y bajo la Presidencia de D. JAVIER URIARTE JAIRO con la asistencia de los Sres. y Sras. Junteros y Junteras anteriormente referidos y actuando como Secretaria Dña. LETICIA DE CASTRO BARTOLOMÉ

| | |
|---|---|
| Ekitaldia hasi eta idazkariak bilkura hasi ahal izateko beharrezkoa den quoruma dagoela egiaztatu ondoren, batzordeburuak, bertaratuei agurra egin ondoren, deialdian adierazitako gai-zerrendako gaien berri eman du. Ondoren, erabaki hauek hartu dira: | Abierto el acto y una vez comprobada por la Secretaria la existencia de quórum necesario para que pueda ser iniciada la Sesión, por la Presidencia se procede, previo saludo a los Asistentes, a conocer los asuntos que figuran incluidos en el orden del día señalado en la Convocatoria, adoptándose a continuación los siguientes acuerdos. |
| **1. 2020KO EKITALDIRAKO ERAKUNDEAREN AURREKONTU OROKORRA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.** | **1. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL PRESUPUESTO GENERAL DE LA ENTIDAD PARA EL EJERCICIO 2020.** |
| Presidenteak zera jakinarazi du: Ogasun Batzordeak, 2020ko abenduaren 12an egindako bileran, 2021eko ekitaldirako aurrekontu-proiektuari buruzko irizpena eman duela, eta bat datorrela kuadrilla honen beharrizan eta betebeharrekin, bai eta horri buruzko legezko eta erregelamenduzko xedapenekin ere. | El Presidente informa que la Comisión de Hacienda en reunión celebrada el día 12 de diciembre de 2020 ha dictaminado sobre el Proyecto de Presupuesto para el ejercicio 2021 encontrándolo conforme y ajustado a las necesidades y obligaciones de esta Cuadrilla, así como a las disposiciones legales y reglamentarias sobre el particular. |
| Ogasun Batzordearen irizpenaren ondorioak: | Conclusiones del dictamen de la Comisión de Hacienda: |
| *"OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA, 2020/12/10EKOA* | *"DICTAMEN DE LA COMISION DE HACIENDA DE 10-12-2020* |
| *Ogasun Batzordeak 2021erako Aurrekontu Orokorraren Proiektua aztertu du, eta Kuadrilla honen behar eta betebeharrekin bat dator, bai eta horri buruzko legezko eta erregelamenduzko xedapenekin ere. Ekitaldian zehar lortuko diren diru-sarrera guztiak jaso dira bertan.* | *La Comisión de Hacienda ha examinado el Proyecto de Presupuesto General para el año 2021, encontrándolo conforme y ajustado a las necesidades y obligaciones de esta Cuadrilla, así como a las disposiciones legales y reglamentarias sobre el particular, habiéndose contenido en el mismo todos los Ingresos que se calculan obtener durante el ejercicio.* |
| *Horregatik guztiagatik, Batzorde informatzaileak uste du Kuadrillako Batzordeari helarazi behar zaiola aurrekontuaren erreferentzia proiektua, baldintza beretan.* | *Por todo lo expuesto, la Comisión informante es del parecer que procede llevar a la Junta de Cuadrilla el Proyecto de referencia del Presupuesto en los mismos términos.* |
| *Kuadrillako Batzordeak erabakiko du egokitzat jotzen duena."* | *La Junta de Cuadrilla, será la que acuerde, lo que estime procedente."* |
| Maria del Mar Belategui Izar de la Fuente Añanako Kuadrillako kontu-hartzaileak labur-labur azaldu du aurrekontua, eta gastuak eta diru-sarrerak zein diren adierazi du. | De orden del Presidente, Dña. Maria del Mar Belategui Izar de la Fuente, Interventora de la Cuadrilla de Añana, expone de manera sucinta el presupuesto, con referencia a los gastos e ingresos. |
| Mario Perea Anuncibay jaunak, Berantevillako Udaleko batzarkide | D. Mario Perea Anuncibay, juntero representante del Ayuntamiento de |

| | |
|---|---|
| ordezkariak, honako galdera hauek egin ditu: | Berantevilla, plantea las siguientes cuestiones: |
| Lehenik eta behin, web-orrira bideratutako 5.000 € inguruko 2020ko aurrekontuko partida bati buruz galdetu du. Ez daki aurten aurrekontuan sartuta ez ote dagoen, iaztik datorrena delako edo webgune berri bat egitea baztertu delako. | En primer lugar, pregunta sobre una partida del presupuesto 2020 de unos 5.000€ destinada a la página web, no sabe si este año no está presupuestado porque se va a arrastrar del año pasado o porque se ha desechado realizar una nueva página web. |
| Bestalde, azken osoko bilkuran, independenteek edukiontzien irisgarritasunari buruzko txosten bat egiteko eskatu zuten, eta abenduaren 3an bidali zitzaien. Txosten horretan adierazi zen edukiontziek ez zutela irisgarritasun-araudia betetzen. Orain gauzatuko diren enplegu-planen bidez, zenbait edukiontzi irisgarriak izaten saiatuko dira. Inbertsioetan, 9.000 € inguruko partida bat dago, edukiontziak mantentzeari buruzkoa, eta badirudi partida hori pixka bat herren geratzen dela, pixka bat urri. Bestalde, uste da Añanako Kuadrillak ahalegin handiagoa egin beharko lukeela eta edukiontzi gehiago birmoldatzen eta pixkanaka eskuragarriago egiten saiatu beharko lukeela. | Por otra parte, en el último pleno los independientes solicitaron la realización de un informe sobre la accesibilidad de los contenedores, siendo el 3 de diciembre cuando les fue enviado, en él se indicaba que los contenedores no cumplían la normativa de accesibilidad. A través de los planes de empleo que se van a ejecutar ahora se va a tratar de hacer accesibles ciertos contenedores. En inversiones hay una partida, de unos 9.000€, que supone que hace referencia al mantenimiento de los contenedores y parece que esa partida queda un poco coja, un poco pobre. Se considera, por su parte, que la Cuadrilla de Añana tendría que ser más ambiciosos y tratar de remodelar más contenedores y hacerlos poco a poco más accesibles. |
| Amaitzeko, ingurumeneko soldatei dagokienez, kontu-hartzaileak azaldu du teknika berri bat egongo dela, beraz, argitu egin du gai hori. | Para finalizar, con respecto a los salarios de medio ambiente, la Interventora ya ha explicado que va a haber una nueva técnica, por tanto, ya se le ha aclarado dicho aspecto. |
| Añanako Kuadrillako presidentea den Javier Uriarte Jairo jaunak, azken gaiari buruz, hau da, ingurumen-teknika berriari buruz, jakinarazi du Berantevillan jada egon direla, astelehenean Iruña Okara joango direla eta Zanbranako alkate den Aitor Abecia Jiménez de Aberasturi jaunarekin hitz egin dela bilera bat hitzartzeko. | D. Javier Uriarte Jairo, Presidente de la Cuadrilla de Añana informa, con respecto a la última cuestión, esto es, a la nueva técnica de medio ambiente, que en Berantevilla ya han estado, el lunes acudirán a Iruña de Oca y que se ha hablado con D. Aitor Abecia Jiménez de Aberasturi, Alcalde de Zambrana, para concertar una reunión. |
| Gainerako udalak bisitatzen direnean, arestian aipatutakoa beharrezkoa den baloratuko da, ez baitira lanpostuak bikoiztuko. Hau da, aukera argia dela eta horren alde egin daitekeela ikusten bada, bai egingo da; bestela, ez da egingo. | Cuando se visiten el resto de Ayuntamientos se valorará si es preciso el mismo, puesto que no se van duplicar puestos. Esto es, si se ve que es una opción clara y que se puede apostar por ella, se hará, en caso contrario, no. |
| Edukiontziei dagokienez, presidente jaunak azaldu du apustu sendoa izango litzatekeela. Ez daki Foru Planeko diru-laguntzaren bidez posible izango | En relación con los contenedores, continúa exponiendo el Sr. Presidente, destacar que se trataría de una apuesta fuerte, desconoce si por medio de |

| | |
|---|---|
| litzatekeen, baina ezezkoa bada, Kuadrillako soberakinen kontura egin beharko litzateke. Amaitzeko, adierazi du apustu hori egokitzat jotzen duela, are gehiago kontuan hartuta Kuadrilla dela zerbitzu hori ematen duena. | subvención de Plan Foral sería posible, en caso negativo tendría que realizarse con cargo a remanente de la Cuadrilla. Finaliza indicando que ve adecuada tal apuesta, más aún teniendo en cuenta que es la Cuadrilla la que presta este servicio. |
| Azkenik, Añanako Kuadrillako kontu-hartzaileak adierazi du webgunea ia amaituta dagoela eta laster aurkeztuko dutela, urtarrilean ziurrenik. | Por último, la interventora de la Cuadrilla de Añana informa que la página web está prácticamente finalizada y que próximamente se presentará, seguramente en enero. |
| Amado Martinez de Iturrate Cuartango jaunak, Erriberabeitiko Udaleko batzarkide ordezkariak, adierazi du independenteek ez dutela aurrekontu hau onartuko, kontinuista dela uste baitute. Bere ustez, aurrekontu honek ez du inbertsio nabarmenik islatzen, kontuan hartuta, hau bezalako urte batean –osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisia duena– kolektibo behartsuenei laguntzeko neurriren bat sartzea nahiko zuketela. Ildo horretan, independenteek aurreko osoko bilkuran mozio bat aurkeztu zuten kolektibo horiei laguntzeko asmoz. Ikusirik mozio hori ez zela onartu, uste da, bestalde, partidaren bat bideratu zitekeela kolektibo horri hainbeste galera ez izaten laguntzeko, beste erakunde batzuk egiten ari diren bezala. | D. Amado Martinez de Iturrate Cuartango, juntero representante del Ayuntamiento de Ribera Baja, indica que los independientes no van a aprobar este presupuesto al entender que es continuista. A su parecer, este presupuesto no refleja ninguna inversión destacada teniendo en consideración que, en un año como este, con una crisis sanitaria, social y económica, les hubiera gustado que se incluyera alguna medida que pudiera ayudar a los colectivos más desfavorecidos. En este sentido, los independientes presentaron en el anterior pleno una moción pensando en ayudar a esos colectivos, viendo que la misma no fue aprobada, se considera, por su parte, que se podría haber destinado alguna partida para contribuir a que a este colectivo no tenga tantas pérdidas, al igual que están haciendo otros organismos. |
| Aitor Abecia Jiménez de Aberasturi jaunak, Zanbranako Udaleko batzarkide ordezkariak, jakinarazi du Zanbranatik eta Añanako Kuadrillako mugimendu independentera zabaltzeko moduan, ez dituela aurrekontuak onartuko, funtsean, iraganean izandako akatsak direla-eta. | D. Aitor Abecia Jiménez de Aberasturi, juntero representante del Ayuntamiento de Zambrana, informa que desde Zambrana y haciendo extensible al movimiento independiente de la Cuadrilla de Añana, tampoco aprobará los presupuestos fundamentalmente porque se incurre en errores arrastrados del pasado. |
| Adibidez, euskarari dagokionez, hizkuntza-eskakizunak dituzten lanpostuetan ikusten da batek ere ez duela derrigortasun-datarik. Derrigortasuna ipintzen hasi beharko litzatekeela uste da, eta maila horretara iristen ez den langileak, legeak baimentzen duen bezala, prestakuntza jasotzeko eszedentzia hartu beharko luke. Gainera, ulertezina da gaztelania hutsean irakurtzea euskara-manifestu bat. | Por ejemplo, sobre el euskera, en los puestos trabajos con perfiles lingüísticos se observa que ninguno tiene fecha de preceptividad, se considera que habría que empezar a marcar la preceptividad y el trabajador que no alcance el nivel se coja, tal y como la ley permite, una excedencia para formarse. Además, no se entiende que se lea un manifiesto de euskera leído íntegramente en castellano. |
| Abecia jaunak jarraitu du azaltzen I. kapitulua gero eta lodiagoa dela, eta 1. | Continúa el Sr. Abecia exponiendo que el Capítulo I está cada vez más |

| | |
|---|---|
| taldeko 28. mailako langileak daudela, soldata-eskala handiegiak dituztenak. Gogorarazi du, bestalde, beste urte batez lanpostuak hutsik daudela, ez direla lanpostuak erregularizatzen, ez dela LEP bakar bat ere ateratzen. Gainera, teknikari bat kontratatu da, eta ez dira ezagutzen prozedura, kontratazio-mota eta irizpideak. Añanako Kuadrilla erakunde publikoa da eta, beraz, erakundean lanean hasten diren langile guztiek hautaketa-prozesu bat igaro beharko lukete. | engordado, habiendo trabajadores de grupo 1 con nivel 28, con escalas salariales desorbitadas, recuerda, por otra parte, que un año más los puestos están desocupados, no se regularizan los puestos, no sale ninguna OPE. Además, se ha contratado una Técnica desconociéndose por su parte el procedimiento, el tipo de contratación y los criterios. La Cuadrilla de Añana es una entidad pública y, por tanto, todo el personal que entra a trabajar en la entidad debería pasar por un proceso de selección. |
| Bestalde, langile finkoak, aldizkako langileak eta bitarteko funtzionarioren bat daudela gehitu da; guztiek diote arazo horri helduko zaiola, baina urteak igaro eta bete gabeko lanpostuek jarraitzen dute. Bitxikeria batzuk daude, hala nola lanpostu bat dagoela gerente-letratu gisa, baina kontua da letratuak ez dituela gerente-funtzioak egiten; badirudi kontu-hartzaileak betetzen dituela. Ildo beretik, bitarteko langileak betetzen duten gerente-letratu lanpostu bat dago, eszedentzia hartu duena eta lanpostua mantentzen duena. Lehen aldia da Aitor Abecia jaunak, Zanbranako Udaleko batzarkide ordezkariak, horren berri duela, hots, bitarteko langile batek lanpostuari eusten diola. Bere ustez, garrantzi handiagoa ematen zaio egoitza berri bat eraikitzeari, gizartean zailak diren koiunturazko gaiak jorratzeari baino. | Se añade por su parte que hay personal fijo, personal discontinuo, algún funcionario interino, todos dicen que se va a abordar este problema, pero pasan los años y siguen los puestos sin ocupar. Hay anécdotas tales como que hay un puesto que de Gerente-letrado, pero resulta que la Letrada no hace las funciones de gerente, sino que parece que quien las ocupa es la Interventora. En el mismo sentido, hay un puesto de Gerente-letrado ocupado por personal interino, que se coge una excedencia y mantienen puesto de trabajo, siendo la primera vez que D. Aitor Abecia, juntero representante del Ayuntamiento de Zambrana, tiene conocimiento de que una persona interina mantiene su puesto de trabajo. En su opinión se le da más importancia a la construcción de una sede nueva que a abordar asuntos coyunturales socialmente difíciles. |
| Amaitzeko, zaborrei dagokienez, esan behar da ez dela borondate-kontua, legea betetzea baizik. 9.000 euroko partida irisgarritasun-legea betetzeko borondaterik ez izatea da, haren ikuspuntutik. | Para terminar, en relación con las basuras indicar que no es cuestión de voluntad, es cuestión de cumplir con la legalidad, la partida de 9.000€ es, desde su punto de vista, no tener voluntad de cumplir con la ley de accesibilidad. |
| Horregatik guztiagatik, eta kideek azaldutako arrazoiengatik, aurrekontu horien alde egitea ezin dela onartu ulertzen da. | Por todo ello, y por las razones expuestas por sus compañeros se entiende que no se puede aprobar favorablemente a estos presupuestos. |
| Eta, beste gairik adierazi ez denez, 2021eko ekitaldiari dagokion aurrekontu-espedientea aztertuta, Kuadrillaren egungo premietara egokituta dagoela ulertuta, eta BI MILIOI BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU MILA EHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA ZORTZI ZENTIMOTAN (2.973.189,08 €) berdinduta geratuta diru-sarrerak eta gastuak, bozketa egin da. | Y, no formulándose otras cuestiones, examinado el correspondiente expediente de Presupuesto para el ejercicio de 2021, entendiéndose que el mismo se encuentra ajustado a las necesidades actuales de la Cuadrilla, quedando nivelado el mismo en sus dos estados de Gastos e Ingresos en la cantidad de DOS MILLONES NOVECIENTOS SETENTA Y TRES MIL CIENTO OCHENTA Y NUEVE EUROS Y |

Bozketaren emaitza: aldeko 7 boto izan dira (Garbiñe Medina Pérez de Nanclares andrea, Jesús Mª Guinea Diaz de Otalora jauna, Rubén Torremocha Galán jauna, Roberto Porres Serna jauna, Asier Martínez de la Pera Montoya jauna, Sonia García Angulo andrea eta Javier Uriarte Jairo jauna), aurkako 3 boto (Mario Perea Anuncibay jauna, Amado Martínez de Iturrate Cuartango jauna eta Aitor Abecia Jiménez de Aberasturi jauna) eta 4 abstentzio (Mª Carmen Mateo López andrea, Miguel Ángel Pérez Santamaría jauna, Julia Rivas García andrea eta Oier Martínez de Santos Goiriena jauna).

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira eta, eztabaidatu ondoren, bertaratutako batzarkideek honako hau ERABAKI dute aho batez:

1. Kuadrilla honen 2021eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena ematea.
2. Aurrekontuaren espedientean agertzen den aurrekontua betearazteko araua onartzea.
3. Erakunde honetako lanpostuen zerrenda onartzea, aipatutako espedientean agertzen dena.
4. Espediente hori jendaurrean jartzea, erreklamazioak egiteko, 9/91 Foru Arauaren 18. artikuluan ezarritako moduan eta epean.
5. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat jotzea.
6. Erreklamaziorik izanez gero, hilabeteko epean beste erabaki bat hartzea.
7. Behin betiko erabakia arautukako moduan eta epean argitaratzea.
8. Behin betiko erabakiarekin batera, erakunde horretako lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 16. artikuluarekin bat etorriz.
9. Espedientearen kopia bat aldi berean Arabako Foru Aldundiari bidaltzea.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik egon ez denez, bilera bukatutzat

OCHO CÉNTIMOS (2.973.189,08€), se somete a votación.

Siendo el resultado de la votación 7 votos a favor (Dña. Garbiñe Medina Pérez de Nanclares, D. Jesús Mª Guinea Diaz de Otalora, D. Rubén Torremocha Galán, D. Roberto Porres Serna, D. Asier Martínez de la Pera Montoya, Dña. Sonia García Angulo y D. Javier Uriarte Jairo), 3 votos en contra (D. Mario Perea Anuncibay, D. Amado Martínez de Iturrate Cuartango y D. Aitor Abecia Jiménez de Aberasturi) y 4 abstenciones (D. Mª Carmen Mateo López, D. Miguel Ángel Pérez Santamaría, D. Julia Rivas García y D. Oier Martínez de Santos Goiriena).

Los Sres. /as Junteros/as quedaron informados y, previa deliberación, por unanimidad de los Junteros asistentes se ACUERDA:

1º.- Aprobar inicialmente el Presupuesto General de esta Cuadrilla para el ejercicio de 2021.

2º.- Aprobar la Norma de ejecución presupuestaria que figura contenida en el expediente del Presupuesto.

3º.- Aprobar la relación de puestos de trabajo de esta entidad, que figura en el mencionado expediente.

4º.- Exponer dicho expediente al público a efectos de reclamaciones en la forma y plazo fijados en el artículo 18 de la Norma Foral 9/91.

5º.- Considerar este acuerdo como definitivo si no hubiera reclamaciones.

6º.- Si hubiere reclamaciones, adoptar nuevo acuerdo en el plazo de un mes.

7º.- Publicar el acuerdo definitivo en la forma y plazo reglamentarios.

8º.- Publicar, con el acuerdo definitivo, la relación de puestos de trabajo de esta entidad, de conformidad con el artículo 16 de la ley 6/1989 de la Función Pública Vasca.

9º.- Remitir simultáneamente, una copia del expediente a la Diputación Foral de Álava.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se da por terminada la reunión,

| | |
|---|---|
| eman da, 18:40an, eta aztertu dena jasota gera dadin, presidenteak sinatzen duen akta hau bete eta nire sinadurarekin ziurtatzen dut. | siendo las 18:40 horas, y para constancia de lo que se ha tratado, extiendo la presente Acta que firma el Sr. Presidente y la certifico con mi firma. |
| PRESIDENTEA IDAZKARIA | EL PRESIDENTE LA SECRETARIA |